


BALIO-PROPOSAMENA

Hegazkin kapsula da gure produktua.

Honek zenbait berezitasun edukiko ditu, beste hegazkinen artean nabarmenduko direnak:

Gure hegazkinean ohe kapsulak egongo dira, baina lo egin nahi ez duen jendearentzat eserlekuak eskuragarri izango ditugu, oheak eserleku bihurtuz. Bertan, kapsula barruan, telebista zerbitzua eskaintzen da. Horrez gain, kapsula bakoitzean, entxufeak eta logela bikoitzetan (haurrengatik) play-aren eskaintza bat ere egongo da.




Janariari dagokionez, kalitate oneko janari freskoa eskainiko da. Bidaia guztietan zerbait eskainiko zaie bezeroei doain, bidaiaren denboraren arabera. Kafetegi zerbitzuak ere eskainiko dira taberna batean eta ez oso urruti, komun publikoak egongo dira. Hegazkinak Wi-Fi zerbitzua eskaintza izango du gainera eta doain izango da.

Erregaiei dagokionez, nahiz eta kutsagarria izan, gaur egungo hegazkinetako berdina erabiliko dugu; izan ere, hegazkin handi bat erabiliko denez, honek duen pisuari eta egin beharreko distantziari ondo eusteko behar duen erregaia beharko da. Hala ere, aipatzekoa da beste arlo guztietan ingurumena zaintzeko ahalegina egingo dugula. Adibidez, hegazkinean ez dira plastikoa duten produktuak erabiliko, gutxiago kutsatu eta ingurumena zaintzeko.


Segurtasuna dela eta, aireratze eta lurreratze garaian ohea automatikoki eserleku bihurtuko da.

Bi solairuko hegazkina denez eskailerak egongo dira eskuragarri atzeko aldean; bezero batek hegazkinetik mugitu nahi badu aukera izan dezan. Atzekaldean, baita ere, tripulazioarentzat aulki batzuk egongo dira eta bertan produktuak gordeko dira.

LEHEN SOLAIRUA



BIGARREN SOLAIRUA



Gure produktuaren eskaintza honelako izango da:

Bezeroak adin guztietako pertsonak izango dira, bereziki familiak edo esperientzia berriak probatu nahi dituztenentzat.

Hauek munduko edozein herrialdeetakoak izan daitezke; beraz, gure hegazkinean bidaiatuko duten pertsona guztiak errespetatuko dira.

Nahiz eta produktua mota guztietako jendearentzat egon eskainia, beharrezkoa da esatea gure zerbitzua nahiko garestia izango dela.

Segurtasun baliabideei dagokienez, larrialdi kasuetarako jausgailuak egongo dira pertsona guztientzat.

Pertsona helduentzat erraz mugituko diren leku espezializatua (heltzeko aukerak...)

Ume txikiei dagokionez, kapsulatan gurasoen oheen aldamenean umeentzako sehasken eskaintzak egongo dira.

Bidaiak mundu osoan zehar izan arren ordu gutxieneko hegalaldiak 5 ordukoak izango dira.